

LEZO / Udazkenean ekingo dio liburutegiak ipuin kontaketa saioei

Urriaren 14an hasi eta azaroaren 25era arteko asteazkenetan egingo dituzte saioak liburutegian

LOREA MUGURUZA

Andreone Udal Liburutegian udazkeneko ipuin kontaketa saioen hitzorduak zehaztu dituzte jada. Urtero legez, aurten ere Euskal Herriko txoko guztietatko ipuin kontalariak etorriko dira herrira, etxeko gaztetxoenen artean literaturarako zaletasuna bultzatzeko.

Lehen ipuin kontaketa saioa urriaren 14an izango da, eta azaroan zehar ere egingo dituzte. Saio guztiak 18:15ean hasiko dituzte Andreone Udal Liburutegian bertan.

Literatur lehiaketak

Zazpi ipuin kontaketa saioez gain (eskubiko koadroan ikus daitezke), bi literatur lehiaketa ere prestatu dituzte liburutegiko arduradunek.

Alde batetik, olerki lehiaketa egingo dute. XVI. Jon Garbizu Olerki Saria izango da, hain zuzen ere. Lau maila izango dira aipatutako lehiaketan: A Mailan, 6 eta 7 urteko gazteek hartuko dute parte; B Mailan, 8 eta 9 urteko gazteek; D Mailan, 10 eta 11 urtekoek eta E Mailan, 12, 13 eta 14 urtekoek. Idazlanek euskaraz idatzita egon behar dute, inoiz argitaratu gabeak izango dira eta gehienez hiru orrialdekoak. XVI. Lope Isastikoa Ipuin saria ere antolatu dute Jon Garbizu Olerki sariarekin batera. Olerki sariak dituen maila berberak ditu ipuin sariak ere.

Sariak

Lehiaketak irabazten dituzten gazteek honako sariak eskuratzeko aukera izango dute: A Mailan, liburuak erosteko 100 euroko bi txartel lortuko dituzte; B Mailan, D Mailan eta E Mailan ere sari berdina lortuko dute.

Horrez gain, antolatzaileek gogorarazi dute aurkeztutako lanak berreskuratzeko aukera izango dutela, sariak banatu ondoren.

Prosa eta olerki lehiaketako sari banaketa abenduaren 11n egingo dute liburutegian bertan, 19:00etan.

Ordutegi berria

Andreone Udal Liburutegiaren ordutegia aldatu dute, irailaren 6ra arte. Astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:00etara izango da zabalik liburutegia. Irailaren 7tik aurrera udazkeneko ordutegia ezarriko dute.

Ipuin kontaketak

Urriaren 14an. Lur Korta ipuin kontalariak, 18:15etik aurrera, Ipuin Borobilak ipuin bilduma kontatuko du. **Urriaren 21a.** Pello Añorga ipuin kontalariak, 18:15ean hasitako, Ipuin kontalariaren lapikoa ipuin bilduma kontatuko du. **Urriaren 28an.** Korri eta Xalto pailazoez, 18:15ean, Lezoko kontu zaharrak ipuin bilduma kontatzeari ekingo diote. **Azaroaren 4a.** Ines Bengoa ipuin kontalariaren eskutik, 18:15ean, Karabi Karaba ipuin bilduma. **Azaroaren 11n.** Maite Franko ipuin kontalariaren eskutik, 18:15ean, Kokoriko, zu bai Tontolapiko ipuina. **Azaroaren 18an.** Lupe Lekuona ipuin kontalariaren eskutik, 18:15ean, Igela Mikela ipuinaz gozatuko dute hurrek. **Azaroaren 25ean.** Antton Irusta ipuin kontalariaren eskutik, 18:15ean, Munduari Itzulua Hamaika ipuinetan.